

**DATUAK**

**Urtean 285 zenbaki.** Urtean 285 zenbaki argitaratuko ditu UROLA-KOSTAKO HITZAK.

**Egunak.** Asteartetik igandera kaleratuko da; astelehenetan ez, beraz.

**8 orrialde, oro har.** Oro har, egunero zortzi orrialde edukiko ditu; tokatuko da 12koa ere egin behar izatea. Ohikoa: azala, kostaldeak hiru orrialde, barrualdeak beste hiru, eta azkena.

**11 langile.** Denera 11 langile ariko dira: zuzendaria, sei kazetari, kudeatzailea, bi komertzial eta teknikaria.

**Zuzendaria.** Gari Berasaluze izango da. Zarautzitarra da.

**51.000 euskaldun.** 2001eko datuen arabera, 67.087 biztanle daude eskualdeko 11 herrietan, eta horietatik 51.000 euskaraz dakitenak.

**10.000 ale inguru.** Euskaldun guztiak alfabetatuak ez direla eta alfabetatu denek irakurtzeko ohitura ez dutela kontuan hartuta, 10.000 ale inguruko tirada izatea da helburua.

**%45-%35-%20.** HITZA argitaratuko duen enpresan %45 izango dute eskualdeko euskara elkarteak, %35 EKT enpresako Bertako Hedabideek, %20 eskualdeko gizarte eragileek (enpresek, sindikatuek, ikastetxeek, elkarteek...).

**631.295 euroko aurrekontua.** Horixe da urteko aurrekontua. **Biztanleko 3 euroko udal laguntza.** Udalei hori eskatu zaie.

**Egoitzak.** Bi egoitza izango ditu HITZAK. Nagusia, Zarautzen: Zelai Ondo 23, behea. Bestea, Azpetian, Uztariarekin batera: Julian Elorza 4, behea, eskubia.

**BESTE HIRU HITZA-K**

**Tolosaldekoa.** 2001eko abenduaren 18an sortu zen Tolosaldeko euskarazko herri egunkaria, *Egunero* izenarekin. *Egunaria*-ren itxieraren ondoren, HITZA izena hartu zuen Tolosaldeko kazetak. Gaur egun, 7.500 ale banatzen ditu, eta web orrialdea ere badu.

**Oarsoaldekoa.** 2003ko ekainaren 24an sortu zen, eta 5.500 ale banatzen ditu egunero.

**Lea-Artibai eta Mutrikukoa.** Hangoa izan da azkena sortzen: 2003ko azaroaren 11n. Bi hilabete besterik ez daramatza eta dagoeneko 4.000 aleko tiradatik oso hurbil dago.



**ERREDAKZIOA**

**H**erriko berri aldizkari emateetik egunero ematera pasatuko dira UROLA-KOSTAKO HITZAK dauden eskualdeko aldizkariaren euskara elkarteak, eta pauso horren garrantziaz mintzatu dira.

**BALEIKE KULTUR ELKARTEA ZUMAIA**

**«Herriko berri egunero euskaraz, baleike»**

«Duela hamar urte Zumaiaiko gazte talde bat aldizkari bat ateratzeko proiektua lantzen ari zen eta puntuetako batek honela zioen: 'Zumaiarrentzat informazioa landu behar dugu, baina euskara hutsean, arlo horretan dagoen hutsunea betetzen ahalegindu behar dugulako'. Orain, hilean behin informazio zabala emateaz gain, Zumaiaiko eguneroko kontuen berri ere emateko erabaki dugu UROLA-KOSTAKO HITZA lantzea, bi proiektuak elkarren osagarri direlako. Baleikelako eta behar dugulako».

**UZTARRIA KULTUR KOORDINADORA AZPEITIA**

**«Egunerokoaren garrantzia»**

«Orain lau urte sortu genuen *Uztarrria* aldizkaria, eta hasieratik hilabetekaria izan da. Beti garbi eduki izan dugu maiztasunean pausoa ematekotan, egunerokora eman behar genuela. Orain, *Uztarrria*-rekin hileroko segitzeaz gain, HITZA aterako dugu, helburu batekin atera ere: euskarazko hau izatea egunero gehien irakurtzen den egunkaria, horrek denak esan nahi duenarekin».

**TXAPARRO KULTUR ELKARTEA ZARAUTZ**

**«Funtsezkoa izango da erreferentzialtasunean»**

«Txaparrotik gogo biziz eta ilusio handiz ekin diogu UROLA-

**Egunero euskaraz informatzearen «garrantzia»**

Euskara elkarten eta Bertakoren ustez, «aurrerapausoa» da HITZA sortzea



Oarsoaldeko familia bat, hango HITZAREkin. LANDER GARRO / OARSOALDEKO HITZA

KOSTAKO HITZAREN proiektuari. Izan ere, gure eguneroko bizitzara euskaraz egiteko ahaleginean beste aurrerapauso bat emango dugu. HITZAREN agerpena funtsezkoa izango da Zarautzen (eta eskualde osoan) euskarazko komunikabideek erreferentzialtasuna lortzeko bidean. Gainera, *Txaparro* aldizkariaren proiektuarekin guztiz bateragarria izango dela ere sinesten dugu».

**DANBOLINZULO KULTUR ELKARTEA ZESTOIA**

**«Goizetik gauera euskaraz bizitzeko»**

«HITZA zertarako? Gure ustez, eguneroko berriak jasotzeko, ezinbestekoa da herriko herri eta auzoz auzo albisteak jaso eta eskainiko dituen egunkari bat izatea. Goizetik gauera eta alor guztietan euskaraz bizitzeko pauso polita izango da. Egia da hor dugula

*Danbolin* aldizkaria. Eguneroko batek beste freskotasun bat du eta hileroko batean zaharkitua gera daitezkeen berriak jorratuko ditu. Eta *Danbolin*-ek segituko du noski, gai zabalagoak landuz. Bestetik, Zestoan izaera propioa duten hainbat auzo ditugu, herri txikiak direnak, eta horiek leku berezia izango dute HITZAN».

**GURE TXERU KULTUR ELKARTEA GETARIA**

**«Herri informazioa euskaraz»**

«Lehenengo, bi hilean behin, eta gero, hileroko. Gure Txeruko argitaratutako *Artzape* aldizkaria bi helburu nagusirekin sortu zen: herri informazioa lantzea eta euskararen normalizazioan oinarri izatea. Orain, beste aurrerapauso bat eman nahi izan dugu: UROLA-KOSTAKO HITZA egunkariarekin bat egitea. Ongi etorri».

**HITZA-REN ALDEKO AZKOITIKO TALDEA AZKOITIA**

**«Euskaraz hezitzeko aurrerapausoa da»**

«Azkoitiarrok ere askotan harrotzen gara herriatik irten eta erdaraz hitz egitea kosta egiten zaigula aitortzen dugunean... Askotan, ordea, ez gara konturatzaren geure burua engainatzen ari garela. Euskaldunak izanda ere, euskaraz hezitzeko gaude oraindik. UROLA-KOSTAKO HITZA ibilbide horretan aurrerapausoa da, gure herriko eta eskualdeko eguneroko albisteak, harrotzen gaituen hizkuntzan jasotzeko tresna».

**HITZA-REN ALDEKO ORIOKO TALDEA (IKASTOLA) ORIO**

**«Aukera ezin hobea dugu, altxorra baita»**

«Ikastolak euskara eta euskal kultura sustatzea du helburu. Ondorioz, historikoki gure hizkuntzarekin lotuta egin diren ekitza orotan parte hartu izan du, nola Orion hala Euskal Herrian: Korrika, Kilometroak, Nafarroa Oinez, Herri Urrats, Euskaraz Biz, *Egunaria*-ren sorrera, *Berria*-ren aldeko kanpaina... HITZAREN aurrean ezin zuen atzera geratu. Aukera ezin hobea dugu, ondo gorde beharreko altxor baten aurrean gaudelako».

**BERTAKO HEDABIDEAK EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA**

**«Egunkari erreferente bihurtzeko»**

«Guretzat, laugarren HITZA da Urola-Kostakoa. Eta orain ere eskualdeko euskara elkarteekin eta gizarte eragileekin sortuko dugu; aurreko hiru urtetan bezala, egunero prentsan herri informazioa euskaraz ematean dagoen hutsunea betetzeko. Beste eskualdeetan HITZA egunkari erreferentzial bihurtu da edo bihurtzeaz da. Uste dugu Urola-Kostan ere lor dezakegula hori. Denen laguntza beharko dugu horretarako».